

## AUTOEBALUAZIORAKO GALDETEGIA

Jarraian, 30 galdera aurkituko dituzu. Egia (E) edo Gezurra (G) diren zehaztu behar duzu, horretarako borobildu aukeratutakoa.

Kontuan izan zuzentzeko irizpideak hauexek direla: ongi dagoen erantzunari puntu 1 ematen zaio eta oker dagoenari puntu 1 kentzen zaio. Hortaz, atera litekeen notarik altuena 30 puntu dira. Gutxienez 15 puntu atera behar dira auto ebaluazio proba hau gainditzeko. Puntu gutxiago lortzen badira, birpasatu ikasteko materialak eta praktikak.

1.- Prestakuntza-diseinuen eraikuntzan eredu tekniko bati jarraitzen diogunean, testuingurua ez da kontuan hartu beharreko elementu.	E	G
2.- Eredu sozio-kritikoan oinarritutako prestakuntza-diseinua aurrera eramaten badugu, kontuan hartuko dira parte-hartzaileek egiten dituzten interpretazioak.	E	G
3.- Eredu praktikokoan oinarritutako prestakuntza-diseinu bat aurrera eramaten badugu, prestatzaileak testuinguruaren barruko norbait izan beharko du beti.	E	G
4.- Gure praktika pedagogikoak, beti interesek zuzentzen dituzte (interes teknikoa, praktikoa, sozio-kritikoa).	E	G
5.- Prestakuntza-diseinu bat eraikitzeko orduan, beti orientazio sozio-kritikoa onena da.	E	G
6.- Erakundeen kultura eta klima gauza bera dira. Biak kontzeptu sinonimoak dira.	E	G
7.- Enpresa baten kultura ikus eta interpreta daiteke.	E	G
8.- Enpresa baten kultura ikasi, zabaldu eta hauteman daiteke, baina ezin da aldatu.	E	G
9.- Prestakuntzarekiko interesa aldatu egiten da adinarekin.	E	G
10.- Helduen ikaskuntzari buruzko teoriak azpimarratzen dute, helduen joera gogoeta eginez ikastea dela.	E	G
11.- Behar potentzialak: pertsonak sentitzen dituztenak eta deskriba ditzaketenak dira.	E	G
12.- Behar normatiboak: sistemak sortzen dituen beharrak dira (gobernua, gizartea, enpresak...).	E	G
13.- Prestakuntza-beharrak aztertzeko, informazioa biltzen duen edozein tresna baliozkoa izango da.	E	G

14.- Prestakuntza-beharretan triangulazioa (iturriena, tekniken...) aplikatzea beharrezkoa da, errealitatearen konplexutasuna ulertzeko.	E	G
15.- Helburuek eta gaitasunek prestakuntza-diseinuaren gainerako elementuak definitzen laguntzen digute.	E	G
16.- Konpetentziak zuzenean ebaluatzen dira.	E	G
17.- Gaitasunak argi eta zuzen azaldu behar dira prestakuntza-diseinuetan.	E	G
18.- Eredu teknikoan oinarritutako prestakuntzetan, <i>Mintegia</i> da prestakuntza-modalitate egokiena.	E	G
19.- Parte-hartzaileekin prestakuntza-teknika bat praktikan jarri aurretik, prestatzaileak teknika hori zer sustatzen duen aztertu behar du.	E	G
20.- Ikaskuntzarako metodologi aktiboak honela definitzen dira: parte-hartzaileak etengabe lanean egotea.	E	G
21.- <i>Philips 6.6</i> teknikak, batez ere, parte-hartzea bultzatzen du	E	G
22.- <i>Akuario</i> teknikak, batez ere, ikerkuntza sustatzen du.	E	G
23.- Prestatzaileak teknika bat hautatzeko irizpideak ezarri behar ditu.	E	G
24.- Baliabideen funtzionaltasunarekiko egokitasuna, erabiltzaileen eta sekuentzia didaktikoaren araberakoa da.	E	G
25.- Ikaskuntza-testuingurua antolatzeak parte-hartzaileen arteko komunikazioa eraginkorra, azkarra eta irekia izan dadin lagundu nahi du.	E	G
26.- Espazioa "U" eran antolatzen denean, parte-hartzaileen eta prestatzailearen arteko komunikazioa errazten da.	E	G
27.- Ebaluazioaren dimentsio garrantzitsuenetako bat da "Zer ebaluatu?", eta galdera hau bakarrik ebaluatu beharreko edukiei buruzkoa da.	E	G
28.- Heteroebaluazioa: prestatzaileak parte-hartzaileari egiten dion ebaluazioa, tresna desberdinak erabiliz.	E	G
29.- Ebaluazio normatiboa izaera barnekoa/intimoa/pertsonala da.	E	G
30.- Prestakuntza-diseinu baten balorazioa egitean, ezinbestekoa da diseinua idatzi duenak hartu dituen erabaki motak deskubritzea.	E	G

## ERANTZUNAK

Erantzun zuzenak berdez daude.

1.	E	G
2.	E	G
3.	E	G
4.	E	G
5.	E	G
6.	E	G
7.	E	G
8.	E	G
9.	E	G
10.	E	G
11.	E	G
12.	E	G
13.	E	G

14.	E	G
15.	E	G
16.	E	G
17.	E	G
18.	E	G
19.	E	G
20.	E	G
21.	E	G
22.	E	G
23.	E	G
24.	E	G
25.	E	G
26.	E	G
27.	E	G
28.	E	G
29.	E	G
30.	E	G